



SANFERMINETAKO KONTAKIZUN LABURREN XII. SARIKETAN OINARRAK

0.- “Asociación para el conocimiento y la difusión de los Sanfermines” (Sanferminen ezagutza eta hedapenerako elkarte) -blogsanfermin.com- elkarteak bultzatu eta antolatu egiten du Sanferminetako Kontakizun Laburren Nazioarteko XII. Sariketa. Ondoko oinarriak ditu sariketak:

1.- Adinez nagusia den edozein nazionalitatetako pertsona fisiko orok parte hartu ahalko du lehiaketan. Hala ere, antolatzaileek, epaimahaikideek eta hauen 1. eta 2. graduako senitartekoek ezin izanen dute sariketa honetan parte hartu.

2.- Egile bakoitzak kontakizun labur bakarra aurkeztu ahalko du. Sariketako epaimahaikideak ezin izanen dira aurkeztu. Ezin izanen da izengoitirik erabili lehiaketan parte hartzeko. Harremanetarako datuek zuzenak, osoak, irakurtzeko modukoak eta egiazkoak izan beharko dute. Lehiakideek kontakizun laburra haiek berek sortua dela ziurtatu beharko dute, eta horren erantzukizun osoa hartuko dute antolatzaileen aurrean. Beraz, antolatzaileek ez dute inolako erantzukizunik izanen horri buruz beste edonork egin lezakeen edozein erreklamazioen aurrean. Horren barnean daude ohore, intimitate, irain eta kalumnia, eta irudi-eskubideari buruzko legedia urratzeagatik izaten ahal diren erreklamazioak, baita iraingarri edo lizun izaten ahal diren esamoldeek sortutakoak ere.

3.- Aurkezten diren kontakizun laburrek 204 hitz izan beharko dituzte gehienez. Obraren izenburua ez da sartzen zenbaketa horretan.

4.- Sanferminei buruzkoa izan beharko du gaiak, eta ondoko hiru hizkuntzetako batean idatzirik beharko du: euskara, gaztelania edo ingelesa. Jatorrizkoak eta argitaragabeak izan beharko dute. Halaber, ez dute lehenagoko beste saririk izan behar, ezta beste lehiaketa batean ebazpenaren zain egon behar ere.

5.- Lanak aurkezteko, <http://www.blogsanfermin.com/inscripcion/> webgunean sartu eta hor dauden alorrak bete beharko dira.

Parte-hartzaileen datu pertsonalak ez zaizkio beste inori inolaz ere ezagutarazi edo lagako.

6.- Kontakizunak aurkezteko epea maiatzaren 5ean hasiko da, 00:00etan; eta ekainaren 6an bukatuko da, 24:00etan (Madril-Espainiako ordu-zonaren arabera).

7.- Aurkezten diren kontakizunetatik 20 obra hautatuko dira. 20 kontakizun labur horietatik 10 finalista hautatuko dituzte epaimahaikideek, baita horietatik hiru irabazleak aukeratuko ere, betiere kontakizunaren literatur kalitatea eta egilearen sormenaren argitasuna kontuan harturik.



SANFERMINETAKO KONTAKIZUN LABURREN XII. SARIKETAN OINARRAK

8.- Epaimahaikideen erabakia apelaezina izanen da, eta kideen gehiengo soila erabilita eginen da. Halaber, eskumena izanen dute gogoeta egitean sortzen ahal diren gorabehera guztiak ebazteko.

9.- Ondoko sariak emanen ditu sariketak:

- Irabazlea: 400 euroko diru-balioko saria.

- Bigarren saria: 200 euroko diru-baliokoa.

- Hirugarren saria: 100 euroko diru-baliokoa.

10.- Epaimahaikideek emanen dute ebazpena, eta ekainaren bigarren erdian (oraindik zehatzeke dagoen datan) www.blogsanfermin.com webgunean ere jakinaraziko dute, eta, berariaz eta zuzenean, saritutako kontakizun laburren egileei. Geroztik, komunikabideetan ere jakinaraziko da. Ekitaldi berean aurkeztuko da lehiaketaren hiru hizkuntz ofizialetara itzultitako 10 obra finalistak jasotzen dituen liburua.

11.- Saria eman gabe gelditu ahalko da, baldin eta, jasotako kontakizun laburren azterketa xehea eginik, horietariko bakar batek ere kalitate mahikorik ez badu.

12.- Antolatzaileek edozein euskarritan argitaratu eta edozein bideren bitartez transmititu ahalko dituzte aurkeztutako lanak. Horretarako, parte-hartzaileek argitaratze eskubideak doan lagatzen dizkiete antolatzaileei, hau da: obrak erreproduzitzeko, banatzeko, eraldatzeko eta jendaurrean komunikatzeko, baita lanak, osorik edo zati bat, merkaturatzeko beste edozein eskubide ere, edozein euskarritan, mundu osorako eta legez ahal den gehieneko eperako. Antolatzaileek konpromisoa hartzen dute kontakizun laburraren egilea aipatzeko. Kontakizunen argitalpen komertziala egitekotan, kasu honi dagokizkion egile-eskubideak ebatziko dira.

Parte-hartzaileek erantzukizun osoa hartzen dute. Beraz, antolatzaileek ez dute inolako erantzukizunik izanen beste inork edozein erreklamazio egiten badu, lehenago egileak hartu duen eta antolatzaileen eskubideei eragiten ahal dien edozein konpromiso eta/edo kargari dagokionez, oinarri hauetan xedatutakoarekin bat.

13.- Lehiaketan parte hartzeagatik, parte-hartzaileek bertan zehazten diren baldintza guztiak onartzen dituzte, eta horiei men egiten diete berariaz.

14.- Nafarroako literatura edo kultura-alorreko pertsona ospetsuek osatuko dute epaimahaia.